

Jatorrizko eta indarreko dokumentu hauek aurkeztu behar dituzu:

Agiriak ez aurkezteko eskubidea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak erabiliz, eta zu honen aurka berariaz ez bazaude, bitarteko elektronikoen bidez eskatuko dituela aurka egiteko eskubidea adierazten duten dokumentuak.

Dokumentu horiek lanbidek bitarteko elektronikoen bidez jasotzearen aurka bazaude, berariaz adierazi beharko duzu, kasu bakoitzean, “Aurka nago” zutabea, gaitutako laukitxoak markatuz eta eskabidearekin batera adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko duzu.

DERRIGORREZKO DOKUMENTUAK:	Prestazioaren titularra	Bizikidetza-unitateko kide guztiak	Erantzukizunpeko adierazpenarekin ordezkari daitezke	Aurka nago
Nortasuna egiaztatzen duen dokumentua: Españiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN) Atzeritarrek: Atzeritarren Identifikazio-Zenbakia (AIZ) edo pasaportea	✓	✓		
Errolda-ziurtagiri historiko eta kolektiboa: eskatzaileak izandako bizilekuak eta egungo bizilekuan kide guztiak bizi direla egiaztatzen duena. (Lanbidek dagokion erroldan elkarreragingarritasunaren bidez sartzeko aukerarik ez badu, bakarrik). Lanbidek kontsulta ditzakeen udalerrien zerrenda NISAE - Elkarreragingarritasungo zerbitzuen katalogoa (izenpe.eus) orrian dago eguneratuta.	✓			☐
Eskubide ekonomikoak baliatzeko betebeharra: Lanbideren ERE-DBE-026 inprimaki-eredua, betebehara hori jasotzen duena, sinatuta.	✓			
Bankuko dokumentuak:				
- Prestazioaren helbideratzea: Lanbideren ERE-DBE-030 inprimaki eredua, bankuak sinatuta eta zigitatuta. *Aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa: - Bizileku-baimenik ez duten atzerriko nazionalitatea duten pertsonak. - Prestazioa erakunde hauetan helbideratzen ez duten pertsonak: Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, BBVA, SabadellGuipuzcoano, Bankoa, Banco Popular, Caja Rural Navarra, Bankinter.	✓			☐
- Titularrak diren banku-kontu guztien egoera jasotzen duen ziurtagiria. Lanbideren ERE-DBE-003 inprimaki-eredua, finantza-erakundeak beteta.	✓	✓	✓	☐
- Banku-kontu guztien eskaera-hileko mugimenduen laburpena.	✓	✓	✓	

SOILIK EGOERA HAUETAKOREN BATEAN BADAGO:	Prestazioaren titularra	Bizikidetza-unitateko kide guztiak	Erantzukizunpeko adierazpenarekin ordezkari daitezke	Aurka nago
Familia-gaiak: senar-emazteak, izatezko bikoteak, adingabeak edo ardurapeko pertsona ezinduek:				
- Familia-liburua edo jaiotza ziurtagiria , Erregistro Zibilarren ziurtagiria edo, hala badagokio, zaintza eta jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriak.	✓	✓	✓	
- EAEko izatezko bikoteen erregistroa.	✓	✓	✓	☐
- Desgaitasun-ziurtagiria : desgaitasuna duten titularrak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo menderotasun-kalifikazioa duten pertsona helduak ardurapean dituzten titularrak.	✓	✓	✓	



Lanbide

EREDUA / MODELO


ERE-DBE-005

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Berrik. 14
Indarrean sartu den eguna:
2024/03/07

SOILIK EGOERA HAUETAKOREN BATEAN BADAGO:	Prestazioaren titularra	Bizikidetzak unitateko kide guztiak	Erantzukizunpeko adierazpenarekin ordezkari daitezke	Aurka egiteko eskubidea
<u>Dibortzioak, banantzeak, mantenu-pentsioa erreklamatzeko:</u> • Epai judiziala, banantzearen, dibortzioaren edo ezkontza-deuseztasunaren kasuan; eta inskripzioa ezeztatu dela egiaztatzen duen erregistro-ziurtagiria, izatezko bikotea hausten bada. - Oraindik izapidetzen ari bada, banantze- edo dibortzio-demandaren kopia. Edo, bestela, banantze-izapideak hasteko doako justiziaren eskaeraren kopia (hasieran hori nahikoa da, gero prozesu judizialean egindako aurrerapenak justifikatu beharko ditu). • Elkarrekin seme-alabak izanez gero: mantenu-pentsioa ezartzen duen hitzarmen arautzailea. - Oraindik izapidetzen ari bada, hasieran nahikoa da doako justizia eskatzeko agiria. Ondoren, prozesu judizialean egindako aurrerapenak justifikatu beharko dira. - Pentsioa ordaindu ezean: ez ordaintzeagatik demanda. • Seme-alabei mantenu-pentsioa ordaindu behar izanez gero: pentsioa ordaindu edo jaso izanaren egiaztatzea.	✓	✓	✓	
<u>Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak (hauetakoren bat):</u> • Biktima aitortzen duen epai judiziala. • Babes agindua edo kautela neurriak, horrelakorik badago. • Babestutako biktimaren egiaztatutuna, zigor-arloko epaitegiek emana. • Ministerio fiskalaren txostena, egoera hori egiaztatzen duena. • Biktima horiei arreata integrala emateko ardura duten gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu publikoen txostena.	✓	✓	✓	
<u>Babesa edo baldintza berezia:</u> • Errefuxiatu-izaera duen pertsona, babes subsidiariorako eskubidea duena edo izapidetzeko onartutako nazioarteko babes edo asilo-eskaera duena: izaera egiaztatzen duen dokumentua, eta izapidetzen ari bada, haren eskaera izapidetzeko onartu zen ebazpena. • Adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemapean egon diren pertsonak, edo adin-nagusikoa izan aurreko aldiren batean EAEko bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu dutenak. Erakunde eskudunaren ziurtagiria. • Ohiko bizilekua utzi duten pertsonak errentak ez ordaintzeagatik, utzarazpenagatik, gerora sortutako ordaintzeko ezintasunagatik, hipoteka betearazteko prozeduragatik, etxebizitza bizitzeko modukoa ez izateagatik edo etxebizitzaren irisgarritasun-arazoengatik, behar bezala egiaztatuta. Utzarazpena egiaztatzea. • Terrorismoaren biktima direla aitortuta duten pertsonak. Terrorismoaren biktimak aitortzeko egiaztatzea. • Euskal gizataldeetako kide izaera aitortuta duten pertsonak. Euskal gizataldeetako kide izatearen egiaztatzea, Kanpoko Euskal Komunitaterako Zuzendaritzak emana. • Erabateko zurruntasun-egoeran edo antzeko egoeran dauden adin nagusiko edo adingabe emantzipatuak: gurasoen heriotza-ziurtagiria edo, hala badagokio, haien egoera egiaztatzen duten beharrezko dokumentuak.	✓		✓	

SOILIK EGOERA HAUETAKOREN BATEAN BADAGO:	Prestazioaren titularra	Bizikidetza-unitateko kide guztiak	Erantzukizunpeko adierazpenarekin ordezkka daiteke	Aurka nago
Baliabide ekonomikoak eta etekinak:				
- Besteren konturako langileak: hileko azken nominaren fotokopia.	✓	✓	✓	
Hiruhileko zenbatekoa eguneratzeko prozeduretarako, hileko nominak aurkeztu beharko dira. Lanbidek informazioa trukatzeko ezarritako sistemen bidez lortuko de informazio hori.	✓	✓	✓	☐
- Beren konturako langileak (autonomoak): • BGDS: aurreko urteko PFEZaren aitortpena. • DSBE: abian den urteko PFEZaren aitortpena.. (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Ogasunen datuetara sartzen da)*. Halakorik ezean, eskabidearen hileko diru-sarrerara garbien zinpeko aitortpena.	✓	✓	✓	☐
- Edozein modalitatetako alokatzetik eratorritako diru-sarrerak: alokairu-kontratua eta kobratu izanaren ziurtagiria.	✓	✓	✓	
- Pentsio eta prestazio publikoak: kobrantzaren egiaztagiria.	✓	✓	✓	☐
- Ogasuna: diru sarrerak eta ondarea.	✓	✓	✓	☐
- DGT: ibilgailuen zerrenda.	✓	✓	✓	☐
Etxebizitza:				
- Errentamendu-kontratua eta, hala badagokio, azpierrentamendu-kontratua. (Inprimaki-ereduak Lanbideren webgunean). - Fidantza gordailuaren frogagiria: Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen du. Betebehar horretatik salbuetsita daude honako kasu hauek: logelen errentamendu-kontratuak, azpierrentamendu-kontratuak, 2015eko irailaren 26aren aurretik izenpeturiko kontratuak eta baterako errentamendu kontratuak, baldin eta ordaindu beharreko hileko prezioa errentari bakoitzak bere aldetik ezartzen badu.	✓			
- Etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatuz gero, pertsona horiekin duen harremana argitu behar da, erantzukizunpeko adierazpen bidez. Bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna badu eta bizikidetza-unitate berekoa bada, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako hauek aurkeztu beharko ditu: • NAN, AIZ edo pasaportea. • Familia-liburua. • ZEP-ari dagozkion hilabeteetako diru-sarrerak (zenbatekoa eguneratzeko prozedura). • Dibortziatuta edo bananduta badago: epaia, hitzarmen arautzailea, mantenu-pentsioa ordaindu edo kobratu izanaren egiaztagiria. • Desgaitasunik badu: desgaitasun-ziurtagiria. • Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo gizakien salerosketaren biktima bada: epaia, babes-agindua edo biktima-izaera egiaztatzea. • ERE-DBE-040 eredua, "Adinez nagusia den onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena". (Adin nagusikoek bakarrik bete beharrekoa). Bizikidetza-unitatea osatzen ez badute, DSBE % 15eko indize zuzentzailearekin murriztuko da. Deskontu hori ez da 98.25 €-tik gorakoa izango pertsona bakarreko bizikidetza-unitateetan, eta 30€ gehiago gehituko da onuradun bakoitzeko.	✓	✓	✓	



lanbide

EREDUA / MODELO

ERE-DBE-005

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU
BEHARREKO DOKUMENTUAK

Berrik. 14
Indarrean sartu den eguna:
2024/03/07

Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO):

• **Kontratua eta ordainketaren frogagiria.** Etxebizitzako prestazio osagarria onartu ondoren, sei hilean behin justifikatu beharko da alokairua ordaindu dela. Inprimaki-eredu orientagarria, Lanbideren ERE-DBE-012.

✓

• **Etxebiden izena emanda egotea.** Salbuespena: etxebizitza berean 10 urte baino gehiago bizi izan direla egiaztatzen duten 65 urtetik gorako pertsonak.

✓

* Jakinarazten dizugu Lanbidek zuzenean kontsultatuko dituela honakoei buruzko datuak: PFEZ, higiezinak, banku-kontuak, ondarea, nomina-ordaintzaileak eta EJZ. Datu horiek EAEko foru-ogasunek eskaintako zerbitzu elkarrengarigarrien bidez eskuratuko dira. Lanbidek kontsulta hori egitearekin ados ez bazaude, zuzenean aurkeztu beharko duzu alderdi horiei buruzko dokumentazioa.

Lanbideren inprimaki-ereduak www.lanbide.euskadi.eus webgunetik deskargatu daitezke.

Atzerrian emandako eta Espainian baliarazi nahi diren dokumentuak, behar bezala legeztatuta egon behar dira:

- Hagako Hitzarmena sinatu duen estatua: jatorrizko herrialdean emandako dokumentua bada, Hagako apostillaren zigilua eduki behar du, jatorrizko estatuko agintaritza eskudunak jarrita. Jatorrizko herrialdeak Espainian duen kontsulatuan edo enbaxadan emandako dokumentua bada, Espainiako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren legeztatzeen atalak legeztatu behar du (General Pardiñas 55, Madril). Bi kasuetan, itzulpen ofiziala aurkeztu behar da baliozkoak izan daitezen.

- Hagako Hitzarmena sinatu ez duen estatua: jatorrizko herrialdean emandako dokumentua bada, Espainiak jatorrizko herrialdean duen enbaxada edo kontsulatuak bide diplomatikoa erabiliz legeztatu behar du. Jatorrizko herrialdeak Espainian duen kontsulatuan edo enbaxadan emandako dokumentua bada, Espainiako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren legeztatzeen atalak legeztatu behar du (General Pardiñas 55, Madril). Bi kasuetan, itzulpen ofiziala aurkeztu behar da baliozkoak izan daitezen.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa 10 urtez gordeko da; ondoren, ezabatu egingo da. Herri Administrazio, Hezkuntza, Justizia, Lan eta Lanbideren funtsei dagozkien kontserbazio-egutegiak onartzeko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko maiatzaren 6ko Aginduan jasotzen den bezala, Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeak (COVASAD).

Data eta eskatzailearen sinadura.

_____ (e)an, 20 ____ ko _____ aren ____ (e)an Sin.: _____